

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

IRUNGO UDALA

Hirigintza eta Garapen Iraunkorreko Arloa

Iragarkia

2018ko urtarrilaren 2an alkateak 1. Ebazpen hau eman du:

«1. Onartzea Zabaltza Plazako 6 eta 7an eta Zuberoa kaleko 2an egindako Xehetasun Azterketaren formulazioa, Miguel Imaz SAU eta Zabalguneke Etxeak SL enpresek sustatua.

Honako parte-hartze programa hau ezartzea:

Prozedura honen esparruan, antolamendu xehatua honela zabaltzea erabaki da:

Proposamena udalaren web orriaren bidez hedatuko da, hasieran onesteko dokumentua jendaurrean ikusgai jartzen denean bertan.

Era berean, herritarren parte-hartzea bermatuko da oneste-prozesuan, alegazioak aurkezteko aukera izan dadin jendaurreko informazio aldian.

2. Hasieran onestea Zabaltza Plazako 6 eta 7an eta Zuberoa kaleko 2an egindako Xehetasun Azterketa, Miguel Imaz SAU eta Zabalguneke Etxeak SL enpresek sustatua, Ondoko baldintza hau betetzekotan:

Zuzkidura-zama kentzeari eta hirigintza aprobetxamenduaren % 15 lagatzeari buruz, eraikitze lizentzia bakoitza behin betiko kuantifikatu beharko da lagapena egiten den unean.

3. Espedientea jendaurreko informazio izapidean jartzea, hoguei egunez, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Lurralde Historikoko hedapen handieneko egunkarietako batean iragarkia argitaratuz, azken argitalpenetik zenbatzen hasita.

Eta hau argitaratzen da, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 98. artikuluan aurreikusitakoa betetzeko.

Irun, 2018ko urtarrilaren 8a.—Alkateak eskuordetuta, Hirigintzako teknikaria. (131)

AYUNTAMIENTO DE IRUN

Área de Urbanismo y Desarrollo Sostenible

Anuncio

Con fecha 2 de enero de 2018 por el Alcalde, se ha dictado la siguiente Resolución n.º 1:

«1.º Aceptar la formulación del Estudio de Detalle en Plaza Ensanche 6 y 7, y c/ Zuberoa n.º 2, promovido por Miguel Imaz SAU y Zabalguneke Etxeak SL.

Establecer el siguiente programa de participación:

En el marco de este procedimiento, se determina que se funda la ordenación pormenorizada mediante:

Divulgación de la propuesta a través de la página Web del Ayuntamiento, coincidiendo con la exposición pública del documento de aprobación inicial.

Asimismo, se garantizará la participación ciudadana en el proceso de aprobación por la posibilidad de presentar alegaciones durante el periodo de información pública.

2.º Aprobar inicialmente el Estudio de Detalle en Plaza Ensanche 6 y 7, y c/ Zuberoa n.º 2, promovido por Miguel Imaz SAU y Zabalguneke Etxeak SL, con sujeción a la siguiente condición:

En cuanto al levantamiento de la carga dotacional y la cesión del 15 % de aprovechamiento urbanístico, deberá cuantificarse definitivamente al momento de la concesión de cada una de las licencias de edificación.

3.º Someter el expediente a información pública por plazo de veinte días mediante publicación de anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa y en uno de los periódicos de mayor difusión del Territorio Histórico a contar desde la última publicación».

Lo que se publica en cumplimiento de lo previsto en el artículo 98 de la Ley 2/2006, de 30 de junio de Suelo y Urbanismo.

Irun, a 8 de enero de 2018.—La técnico de Urbanismo, pd del Alcalde. (131)